

Erakusketa Ibiltaria  
Natura 2000 Sarea

**DBH**

# NATURA 2000 JOKOA

**“Bizitzeko tokiak,  
pertsonentzako tokiak”  
erakusketa ibiltaria.**

**2009-2010**



**C TALDEA**



**EUSKO JAURLARITZA**  **GOBIERNO VASCO**



## 1 Zer da biodibertsitatea?

Jarraian ageri diren baieztapenak egia ala gezurra dira?

- Biodibertsitatea, putzu batean agertzen den igel espezie bateko norbanako ezberdinak dira.
- Biodibertsitatea, putzu batean agertzen diren igel espezie ezberdinak dira.
- Biodibertsitatea, udalerrri batean ageri diren putzu ezberdinak dira.
- Biodibertsitatea, udalerrri ezberdinetan ageri diren igel populazioak dira.
- Biodibertsitatea, herrialde ezberdinetan ageri diren putzuak dira.



## 2 Biodibertsitateari neurria hartzen!

Jarraian agertzen diren ekosistemei so egin, zein da biodibertsitate handiena duena? Lehenago bete ezazu jarraian ageri den taula, marrazkia begiratu.

Espezie	Izakien kopurua										
	Mirotz urdina	Zapelatz arrunta	Kaskabeltz handia	Elorri beltza	Elorri zuria	Basurdea	Albitz-belar	Txantxangorri	Haritza	Garia	Guztira
A-Basoa											
B-Monolaborantza											
C-Landazabal Atlantikoa											


BIZITZEKO TOKIAK, PERTSONENTZAKO TOKIAK



A



B



C

Monolaborantzak eta landazabal Atlantikoak paisaia gizatartuak dira, gizakiaren esku-hartzearen ondorio dira, baina biodibertsitate maila oso ezberdina aurkezten dute, zergatik izan daiteke?

### 3 Txeritxo bat gutxiago egoteagatik ezer pasatzen ez dela pentsatzen duten horietakoa al zara?



Behar duzun informazio guztia erakusketako 3. moduluko paneletan eta puzzle jokoa aurkituko duzu.



Bioaniztasunari balio ezberdinak ematen zaizkio:

#### Zuzeneko balio ekonomikoak:

- Elikagai iturri bezala: denboran zehar gizakia gertuen zituen espezieez baliatu da elikatzeko.
- Sendagai iturri bezala: gaur egun 2000 landare espezie inguru erabiltzen dira medikuntzan.
- Erreserba genetiko bezala: espezie bakoitzak (gene multzoa) naturako elementu bakar bat osatzen du, egun guretzat erabilgarritasunik eduki ez arren, etorkizunean izan dezake eta balio handiko erabilerak agertu daitezke.

**Zeharkako balio ekonomikoak edo balio ekologikoak:** izaki bizidun orok funtzio bat du naturan eta naturaren oreka espezie guztien presentzia eta funtzionamendu egokiaren menpe dago.


**Balio estetikoak:** natura edertasun iturria da eta gizakiak betidanik ustiatu izan duen baliabidea da.

**Balio etikoak:** honen oinarria izaki bizidun guztiek bizitzeko duten eskubidea da.



Puzzle jokoan erantzuna aurkitu aurretik, pentsa ezazu zein balio duten izaki bizidun hauek zuretzat.

► Zein balio dute...



... landareek?

---



---



...anfibiok?

---



---



... arrainek?

---



---




... intsektuek?

---



---



... hegaztiak?

---



---



Eta bakterioek?

---




---



Ba al zenekien eskorpioia erradiazio atomiko kaltegarriekiko animalia erresistenteenatariko bat dela?

Ba al zenekien dauden 75.000 landare jangarrietatik egun 150 bakarrik lantzen direla eskala handian? Eta hauetatik %60a arrosa, garia, artoa eta patatak osatzen dutela?



Eta, zein balio dute izaki bizidun guzti hauek?

---

---


---




BIZITZEKO TOKIAK, PERTSONENTZAKO TOKIAK

## 4 Natura 2000 sarearen alde lanean

Ekintzaileen bideoan eta 6. moduluan dagoen produktu eta zerbitzuen standean hainbat adibide aurkituko dituzu



**Naturaren kontserbazioan** eta ekonomian pentsatuz gero aurkako terminoak direla pentsa dezakegu. Natura zaintzen dugun bitartean ekonomikoki haztea ezinezkoa dela iruditzen zaigu, baina Natura 2000 sarean lan egiteko moduak mito faltsu hau balio gabetzen du. Posible da natura kontserbatzea eta gure **ekonomia garatzea!**



Adibideak ikusi ostean bete ezazu jarraian dagoen galdeketa:

- Orokorrean zein sektoretako (lehen sektorea, bigarren sektorea edo hirugarren sektorea) lanak dira?


---

► Zein produktu eta zerbitzu lortzen dira?

---

---

---



► Zein eremutan gauzatzen dira? (hiri eremuan, nekazal eremuan edo natur eremuan)

---

---

---

► Jarduera ekonomiko hauek biodibertsitateari onura edo kaltea dakarkiot? Zergatik?

---

---

---

► Nori uste duzu dakarkiotela onura jarduera hauek?

---

---

---